

# Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala

## ATALAURREKOA

Hizkuntz eskubideen deklarazio unibertsal hau sinatzen dugun instituziook eta gobernuz kanpoko erakundeak, Bartzelonan bildurik, 1996ko ekainaren 6tik 9ra.

Ikusirik Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, 1948koa, bere aitzin solasean baieztatzen duena "bere fedea oinarriko, giza eskubideengan, gizakiaren duintasun eta balioarengan. eta gizonezkoengan, gizakiaren duintasun eta balioarengan, eta gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide-berdintasunarengan", eta bere bigarren artikuluan ezartzen duena "gizaki orok dauzka eskubide eta askatasun guztiak", "arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politikazko zein bestelako iritzi, jatorri nazional edo sozial, egoera ekonomiko, jaiotza edo beste edozein kondizioengatik" inolako bereizkeriarik onartu gabe;

Ikusirik Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko ituna, 1996ko abenduaren 16koa, (27, artikulua), eta data bereko Eskubide Ekonomiko Sozial eta Kulturalen Nazioarteko ituna, zeinek bere hitzaurreetan baieztatzen baitute gizakia ezin dela libre izan ez badira sortzen eskubide zibil, politikoez, ekonomikoez, sozialez eta kulturez gozatzeko bidea ematen dioten baldintzak;

Ikusirik 47/135 Ebazpena, 1992ko abenduaren 18koa, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Orokorrarena, gutxiengo nazional edo etniko. erlijioso eta linguistikoen kide diren pertsonen eskubideei buruzko Deklarazioa bere egiten duena;

Ikusirik Europako Kontseiluaren deklarazioak eta hitzarmenak, hala Giza Eskubideen eta Oinarriko Askatasunen Ba7beserako Europako Hitzarmena, 1950eko azaroaren 4koa (14. artikulua); Europako Kontseiluaren Ministro-Kontseiluaren Konbentzioa, 1992ko ekainaren 29koa, zeinaren bidez onesten baitzen Erregioetako zein gutxiengoan hizkuntzei buruzko Europar Karta; Europako Kontseiluaren Gailurraren Deklarazioa, 1993ko urriaren 9koa, gutxiengo nazionaleri buruzkoa; eta gutxiengo nazionalen babeserako marko-konbentzioa 1944ko azarokoa;

Ikusirik Santiago de Compostelako Deklarazioa, Nazioarteko PEN Club-arena, eta 1993ko abenduaren 15eko Deklarazioa, Nazioarteko PEN Club-eko itzulpen eta hizkuntz eskubideen Komitearena, Hizkuntz Eskubideei buruzko munduko konferentzia egiteko proposamenari buruzkoa;

Ikusirik ezen Brasileko Recife-ko Deklarazioan Kulturarteko Komunikazioa Garatzeko Nazioarteko Elkarteak Nazio Batuei gomendatzen diela beharrezko neurriak har ditzaten Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartzeko eta aplikatzeko;

Ikusirik Nazioarteko Lanaren Erakundearen 169. Konbentzioan, 1989ko ekainaren 26koa, herrialde independentetako herri indigenei buruzkoa;

Ikusirik ezen Herrien eskubide kolektiboen Deklarazio Unibertsalak, 1990eko maiatzekoak, deklaritzen duela edozein herrik duela eskubidea bere kultura, hizkuntza eta antolatze erak adierazteko eta garatzeko, eta hori lortzeko, politikazko, hezkuntzazko, komunikaziozko eta administrazio publikozko egiturez, marko politiko desberdinetan, bere burua hornitzeko;

Ikusirik Hizkuntza bizien irakasleen Nazioarteko Federazioaren Biltzar Orokorrak 1991ko abuztuaren 16an Hungariako Pecs-en egindako azken Deklarazioa, zeinean gomendatzen baita hizkuntz eskubideak gizabanakoaren oinarrizko eskubidetzat hartuok izan daitezela;

Ikusirik Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte-Kontseiluaren Giza Eskubideen txostena, 1994ko apirilaren 20koa, Herri indigenen eskubideei buruzkoa, zeinetan norbanakoen eskubideak eskubide kolektiboen argitan baloratzen baitira;

Ikusirik giza eskubideen Amerikarako Batzorderen Deklarazioaren zirriborroa, herri indigenen eskubideei buruzkoa, 1995eko irailaren 18an onetsia 1278. bilkuran;

Kontuan izanik ezen munduko hizkuntza mehatxatu gehienak subiranotasunik gabeko herriei dagozkiela, eta kontuan izanik auto-gobernurik eza nahiz eta bere egitura politiko-administratiboa eta bere hizkuntza inposatzen duten estatuak direla hizkuntza mehatxatuen garapena eragotzi eta hizkuntz ordezkatzea azkartzen duten eragile nagusietakoa;

Kontuan izanik ezen inbasioak, kolonizazioak eta okupazioak eta baita menperatze politiko, ekonomiko edo sozialaren beste kasuek, sarritan hizkuntza arrotza inposatzea dakartela, edota gutxienez hizkuntzen balioen pertzepzioaren endekatzea eta hiztunen hizkuntz leialtasunari kalte eragiten dioten jarrera linguistiko hierarkizatzaileak; eta kontuan izanik arrazoi horiexengatik subiranotasunera heldu diren herri batzuen hizkuntzak hizkuntz ordezte-prozesuan murgildurik daudela, aintzinako botere kolonizatzaile edo inperialaren hizkuntzaren alde jokatzeko duen politikarengatik;

Kontuan izanik ezen unibertsalismoaren oinarria izan behar duela halako dibertsitate linguistiko eta kulturalaren kontzepzio batek non era berean joera homogeneizatzaileak eta isolamendu baztertzailerako joerak gainditzen diren;

Kontuan izanik ezen komunitate linguistikoen arteko bizikidetzak baketsua bermatzeko ezinbestekoa dela aurkitzea halako guztien gaineko printzipio batzuk non hizkuntza guztien sustapena, errespetua eta gizarte-erabilera publiko zein pribatua ziurtaturik gera daitezkeen;

Kontuan izanik ezen hizkuntzaz kanpoko hainbat faktorek (historikoak, politikoak, lurraldearekikoak, demografikoak, ekonomikoak, soziokulturalak, soziolinguistikoak, eta jarrera kolektiboek dagozkienak) hizkuntza ugarien desagertzea, bazterketa eta endekatzea eragiten duten problemak sorrarazten dituztela, eta beharrezkoa dela, hortaz, hizkuntz eskubideak ikuspegi global batetik planteatzea, kasu bakoitzean konponbide berezi eta egokiak aplikatu ahal izan daitezkeen;

Oharturik ezinbestekoa dela Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsal bat, bide emango duena hizkuntz arteko desorekak zuzentzeko, eta modu horretan ahalbidetzeko bai hizkuntza guztien errespetua eta garapen osoa eta baita mundu osoan zehar bake linguistiko zuzen eta ekitatezkoaren printzipioen ezarpena. bizikidetzak sozialari eusteko gako-faktorea baita;

## ***DEKLARATZEN DUGU***

### **HITZAURREA**

Hizkuntza bakoitzaren egoera, aurreko kontsiderazio guztiak ikusirik, faktore desberdin ugarien elkartze eta elkar-eraginen emaitza da. Horietako faktoreak dira: politiko-juridikoak,

ideologikoak eta historikoak, demografikoak eta territorialak, ekonomikoak eta sozialak, kulturalak, linguistikoak, eta azkenik subjektiboak.

Egungo egoeraren ezaugarri zehatzak honako hauek dira:

I. Estatu gehienen sekulako joera bateratzailea, desberdintasuna murriztera eta kulturazko zein hizkuntzazko aniztasunaren aurkako jarrerak laguntzera daramana.

II. Mundializazio prozesua, ekonomiarena lehenik, eta ondorioz, informazioaren, komunikazioaren eta kulturaren merkatuarena, zeinak azpikoz gora jartzen baititu komunitate linguistiko bakoitzaren barnekohesioa bermatzen duten harreman-esparruak eta elkarreraginak.

III. Hazkunde-eredu ekonomizista, nazioz haraindiko talde ekonomikoek bultzatua, zeinaren arabera gauza berdina baitira aurrerapena eta desaraupena, indibidualismo lehiakorra eta askatasuna, desberdintasun ekonomiko, sozial, kultural eta linguistiko larriak gero eta bortitzaigo sortuaz doana.

Une honetan hizkuntz komunitateek jasaten dituzten mehatxuek, dela autogobernurik ezarengatik, edo demografia murriztarengatik nahiz zatian edo erabat sakabanatuarengatik, dela kodifikatu gabeko hizkuntza izateagatik, edota nagusiaren aurkako kultur eredua izateagatik, eragiten dute ezinezkoa gertatzea hizkuntza askorentzat bizitzea edo goratzea, kontuan hartu ezean ardatz nagusi hauek:

I. Politikaren ikuspegitik, desberdintasun linguistikoarentzat halako antolakera pentsatzea non hizkuntz komunitateek benetako partaidetza izango duten hazkunde-eredu berri honetan.

II. Kulturaren ikuspegitik, guztiz bateragarri bihurtzea mundu-mailako komunikazio-esparrua alde batetik eta garapen-prozesuan herri, hizkuntz komunitate eta pertsona orok partaidetza orekatua edukitzea, bestetik.

III. Ekonomiaren ikuspegitik, garapen sostengarria bideratzea, bakoitzaren partaidetzan, gizartearen oreka ekologikoaren errespetuan, eta hizkuntza zein kultura guztien arteko erlazio ekitatiboetan oinarriturik.

Horrengatik guztiarengatik, deklarazio honek ez estatuak baizik eta hizkuntz komunitateak hartzen ditu abiapuntutzat, eta gizateria

osoarentzako garapen sostengarri eta orekatua bermatzeko gauza diren nazioarteko erakundea indartzeko ahaleaginean sartzen da, eta helburutzat dauka hizkuntz desberdintasunaren marko politikoa, bizikidetzan eta elkarren errespetu eta onuran oinarritua bilatzea.

## ***ATARIKO TITULUA*** ***KONTZEPTUEN ZEHAZPENA***

### ***1. artikulua.***

1.- Deklarazio honetan hizkuntz komunitatea aipatzean esan nahi da edozein gizarte, historian zehar lur-eremu zehatz betean eremua errekonozitua izan ala ez finkatua, bere burua herritzat daukana, eta hizkuntza komun bat garatu duena kideen arteko komunikazio naturalaren eta kultur kohesioaren bidetzat. Lurralde bateko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa deizioekin, lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen mintzairari egiten zaio erreferentzia.

2.- Deklarazio honen abiapuntua da hizkuntz eskubideek era berean indibidualak eta kolektiboak diren printzipioa, eta hizkuntz eskubideen oso-betetasunaren erreferentetzat hartzen du hizkuntz komunitate historiko bat bere lurralde-eremuan, eremu hau ulerturik ez soilik komunitate hori bizi deneko geografi zati gisa, baizik eta hizkuntzaren garapen osorako ezinbestekoa den espazio sozial eta funtzional gisa ere. Erreferente horretatik abiatuta ezar daitezke mailakatze edo continuum modura artikulua honetako bereko 5. puntuan aipatzen diren talde linguistikoaren eta bere komunitatearen lurraldetik at dauden pertsonen eskubideak.

3.- Deklarazio honen efektuetarako, ulertzen da bere lurralde propioan daudela eta hizkuntz komunitate bateko kideak direla ondoko baldintzak betetzen dituzten giza multzoak:

I. Muga politiko edo administratiboengatik bere komunitatearen gunen nagusitik bereizita daudenak;

II. Geografi eremu txiki batean, beste hizkuntz komunitateetako kidez inguraturik historian zehar kokaturik daudenak;

III. Antzeko historikotasuna duten beste hizkuntz komunitateetako kideekin batera partitzen duten geografi eremuan finkatuta daudenak.

4.- Deklarazio honen efektuetarako bere lurralde historikoan dauden hizkuntz komunitatetzat edukiko dira herri nomadak beren joan-etorrien eremuetan, eta asentamendu barreiatuetan bizi diren herriak.

5.- Deklarazio honek talde linguistikotzat dauka edozein giza talde, hizkuntza bera duena, eta beste hizkuntz komunitatearen lur eremuan kokatuta dagoena, azken honen adinako historikotasunik gabe: halakoak baitira inmigratuak, errefuxiatuak, deportatuak eta diasporetako kideak.

## ***2. artikulua.***

1.- Deklarazio honek sostengatzen du ezen hizkuntz komunitate eta talde desberdinak lurralde konpartitu botean kokaturik daudenean, Deklarazio honetan formulatutako eskubideen egikaritzea, denon arteko errespetuan eta garantia demokratiko handien artean arautuko dela.

2.- Behar bezalako oreka soziolinguistikoa xedatzerakoan, esan nahi baita, hizkuntz komunitate eta talde horien zuzenbideen, eta horietako kideen zuzenbideen arteko artikulazio egokia bilatzerakoan, beharrezkoa da kontuan hartzea, bai haien historikotasun erlatiboa, eta demokratikoki adierazitako borondatea, eta baita tratu birrorekatzailera, helburu konpentsatzailekoa, gomenda dezaketenean beste faktoreak ere; esate baterako, komunitate eta talde desberdinak elkarrekin bizitzera bultzatu dituzten migrazioen derrigorrezkotasuna, edo bere ahuldade politiko, sozioekonomiko edo kulturalaren maila.

## ***3. artikulua.***

1.- Deklarazio honek eskubide pertsonal besterenezintzat, eta edozein egoeratan egikaritzeko modukotzat, dauzka honako hauek:

I. Hizkuntz komunitate bateko kideatzat ezagutua izateko eskubidea;

II. Hala jendaurrean nola maila pribatuan hizkuntza erabiltzeko eskubidea;

III. Norberaren izena erabiltzeko eskubidea;

IV. Jatorrizko hizkuntz komunitateko beste kideekin harremanak izateko eta elkartzeko eskubidea;

V. Kultura propioa mantendu eta garatzeko eskubidea.

VI. Eta, Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko itunean, 1966ko abenduaren 16koan, eta halaber, data bereko Eskubide Ekonomiko,

Sozial eta Politikoen Nazioarteko Itunean, aitortutako eduki linguistikozko eskubide guztiak.

2.- Deklarazio honek kontsideratzen du ezen hizkuntz taldeen eskubide kolektiboak, haien kideentzat aurreko lerroaldean ezarritakoez gain, eta 2.2. artikuluko zehaztapenen arabera, ondoko hauek zabal daitezkeela:

I. Hizkuntza eta kultura propioaren irakaskuntza izateko eskubidea;

II. Zerbitzu kulturalak edukitzeko eskubidea;

III. Taldearen hizkuntzak eta kulturak komunikabideetan presentzia ekitatiboa izan dezaten eskubidea,

IV. Erakunde ofizialetan eta harreman sozioekonomikoetan norbere hizkuntzan harrera izateko eskubidea.

3.- Honaino aipatutako pertsona eta taldeen eskubideak ezin daitezke oztopo izan haien eta komunitate linguistiko hartzailearen arteko interrelaziorako eta integrazioarako, ez eta ere inolako mugapen komunitate honek edo bere kideek duten eskubiderako bere lurralde esparru osoan hizkuntza propioaren osotasunezko erabilera publikoa egiteko.

#### **4. artikulua.**

1.- Deklarazio honek kontsideratzen du bereaz ateko hizkuntz komunitate baten lurraldera lekualdatzen eta bertan kokatzen diren pertsonak, eskubide eta betebeharrak dutela bertan integraziozko harremanak izateko. Integrazioak esan nahi du pertsona horien halako sozializazio gehitua, non jatorrizko ezaugarri kulturalak gorde ahal izango dituzten, baina hartzen dituen gizartearekin nahikoa erreferentzia, balore eta portaera partekatuz, gizartearen funtzionamendu globalak, komunitate hartzailearen kidearenak baino zailtasun gehiago izan ez dituzan.

2.- Deklarazio honek kontsideratzen du, aitzitik asimilazioa hau da, pertsonak gizarte hartzailean akulturatzea, bere jatorrizko ezaugarri kulturalen ordez gizarte hartzailearen erreferentzia, balore eta portaera propioak hartuz ez dela inola ere derrigortua edo induzitua izango, baizik eta askatasun osoz egindako aukera baten ondorio.

### ***5. artikulua.***

Deklarazio honen funtsean dago printzipio bat zeinaren arabera hizkuntz komunitate guztien eskubideak berdinak diren, kontuan izan gabe bere kontsiderazio juridiko edo politikoa den hizkuntza ofizialarena, erregionalarena edo minoritorioarena. Hizkuntza erregional edo minoritario bezalako izendapenak ez dira testu honetan erabiltzen zeren eta, kasu batzuetan hizkuntza erregional edo minoritariotzat aitortua izateak eskubide hauek egikaritzea erraz badezakeen ere, horiek eta antzeko izendapenak usuegi erabiltzen dira hizkuntz komunitate baten eskubideak murrizteko asmoz.

### ***6. artikulua.***

Deklarazio honek baztertu egiten du hizkuntza bat lurralde bateko hizkuntza propiotzat hartzea horretarako arrosi bakarria bada estatuaren hizkuntza ofiziala izatea edo lurralde horretan administrazioaren edo jarduera kultural jakin batzuen hizkuntza gisa erabiltzeko tradizioa edukitzea.

## ***LEHEN TITULUA*** ***PRINTZIPIO OROKORRAK***

### ***7. artikulua.***

1.- Hizkuntza guztiak dira nortasun kolektibo baten adierazpen, eta baita errealitatea modu desberdinean hautemateko eta deskribatzeko tresna; hortaz, funtzio guztietan garatu ahal izateko baldintzez. gozatzeko aukera izan behar dute.

2.- Hizkuntza bakoitza da kolektiboki eraikitako errealitatea, eta komunitate baten magalean bilakatzen da erabilgarri norbanakoentzat, kohesioaren, identifikazioaren, komunikazioaren eta adierazkortasun sortzailearen tresna gisa.

### ***8. artikulua.***

1.- Hizkuntz komunitate orok daukate eskubidea baliabide propioak antolatu eta kudeatzeko, gizarte-funtzio guztietan bere hizkuntzaren erabilera ziurtatzeko helburuarekin.

2.- Hizkuntz komunitate orok daukate eskubidea hizkuntzaren transmisioa eta jarraikuntza ziurtatzeko behar diren baliabideak eskura izateko.

### ***9. artikulua.***

Hizkuntz komunitate orok daukate eskubidea bere hizkuntz sistema kodetzeko, estandarizatzeko, garatzeko eta sustatzeko, derrigorturiko edo induzituriko interferentziarik gabe.

#### ***10. artikulua.***

1.- Hizkuntz komunitateko orok eskubide berdinak dituzte.

2.- Deklarazio honek arbuiagarritzat jotzen ditu hizkuntz komunitateen aurkako diskriminazio guztiak, hala haien subiranotasun politikoan, haien egoera sozial edo ekonomikoan bezalako irizpideetan oinarriturikoak nola hizkuntza horiek lortu duten kodetze, eguneratze edo modernizatze mailan aitzakia hartutakoak.

3.- Berdintasun-printzipioa aplikatuz berdintasun hori efektiboa izan dadin ezinbesteko neurriak hartu beharko dira.

#### ***11. artikulua.***

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka Deklarazio honetan jasotako eskubideen egikaritzea bermatzen duten zuzeneko edo alderantzizko itzulpenarako baliabide guztiak eskura izateko.

#### ***12. artikulua.***

1.- Gizaki orok eskubidea dauka alor publikoko jarduera guztiak bere hizkuntzan egiteko, baldin eta bera bizi den lurraldeko hizkuntza propioa bada.

2.- Gizaki orok eskubidea dauka alor pertsonal eta familiarterakoan bere hizkuntza erabiltzeko.

#### ***13. artikulua.***

1.- Gizaki orok eskubidea dauka bizi den lurraldeko hizkuntza propioa ikasteko.

2.- Gizaki orok eskubidea dauka eleaniztun izateko, eta bere garapen edo mugikortasun sozialerako lagungarrien iruditzen zaion hizkuntza ikasteko, galarazi gabe Deklarazio honetan, lurraldeko hizkuntza propioaren erabilera publikoa bermatzeko ezartzen diren garantiak.

#### ***14. artikulua.***

Deklarazio honetako xedapenak ezin dira interpretatu edo erabili, estatu barruko nahiz nazioarteko erregimeneko edozein arau edo praktikak hizkuntza bat bere lurraldean erabiltzeko ezarritako tratu faboragarriagoren aurka.

# ***BIGARREN TITULUA***

## ***HIZKUNTZ ERAENTZA OROKORRA***

### **I. ATALA**

#### **ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA ORGANO OFIZIALAK**

##### ***15. artikulua.***

1.- Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere hizkuntza ofizialtzat erabilia izan dadin bere lurraldearen barruan.

2.- Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka jarduketa judizial eta administratiboak, dokumentu publiko eta pribatuak, eta erregistro publikoetan egindako inskripzioak lurraldeko hizkuntza propioan egiten direlarik baliozkoak eta eraginkorrak izan daitezen, eta inork alega ahal izan ez dezan hizkuntza hori ez dakiena.

##### ***16. artikulua.***

Hizkuntz komunitate bateko edozein kidek eskubidea du bere hizkuntzan erlazionatzeko eta harrera izateko hizkuntza hori propiotzat duen lurraldea bere baitan duten botere publikoen, eta administrazio-dibisioen zerbitzuen aldetik, zentralak, lurraldekoak, tokikoak hala lurraldez gaindikoak izan.

##### ***17. artikulua.***

1.- Hizkuntz komunitate orok eskubide dauka eskura izateko eta eskuratzeko bere hizkuntza propioan, hizkuntza hori nongoa den eta bertako lurraldeari dagozkion harremanetarako dokumentazio ofiziala, paperean, euskarri informatikoan edo beste edozeinetan.

2.- Botere publikoek eskura izan behar dituzte, eta jendeari eskaini, lurralde-hizkuntza bakoitzaren lurraldeei dagozkien zerbitzuetan, delako hizkuntzan idatziriko formularioak, inprimakiak, eta ereduak, paperean euskarri informatikoan edo beste edozeinetan.

##### ***18. artikulua.***

1.- Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka berari dagozkion legeak eta gainerako arau juridikoak lurraldearen hizkuntza propioan argitara daitezen.

2.- Botere publikoek, bere jarduketa-eremuaren barruan, territorialki historikoa den hizkuntza bat baino gehiago dutenean,

hizkuntz horietan argitaratu behar dituzte legeak eta gainerako arau juridikoak, kontuan hartu gabe haien hiztunek beste hizkuntzak ulertzen dituztenentz.

**19. artikulua.**

1.- Ordezkarien batzarrek ofizialtzat hartu behar dituzte ordezkari diren lurraldeetan historian zehar hitz egindako hizkuntza edo hizkuntzak.

2.- Asentamendu barreiatutako komunitateen, 1. Artikuluko 4. paragrafoan erreferentzia dutenen, hizkuntzei ere aplikatzen zaie eskubide hau.

**20. artikulua.**

1.- Gizaki orok eskubidea dauka ahoz eta idatziz erabiltzeko justizia-auzitegien aurrean, horiek kokatuta dauden lurraldean historian zehar hitz egindako hizkuntza. Auzitegiek lurraldeko hizkuntza propioa erabili behar dute bere barne-jarduketetan, eta estatuaren antolaketa judiziala dela eta prozesuak hasierako lurraldetik kanpo jarraitu balu, hasierako hizkuntzari eutsi beharko litzaioke.

2.- Edozein kasutan ere, gizaki orok eskubidea dauka ulertzen duen eta hitz egin dezakeen hizkuntza batean juzkatua izateko, edo interpretari bat dohain eskuratzeko.

**21. artikulua.**

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka erregistro publikoetako idazpenak lurraldeko hizkuntza propioan egin daitezen.

**22. artikulua.**

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka notarioek edo fede publikoa duten funtzionarioek, baimendutako dokumentuak idatziak izan daitezen notarioak edo fede publikoa duen funtzionarioak bere egoitza kokatu duen lurraldeko hizkuntza propioan.

## **II. ATALA**

### **HEZKUNTZA**

**23. artikulua.**

1.- Hezkuntzak lagundu egin behar du, ematen den lurraldeko hizkuntz komunitatearen autoadierazpen linguistiko eta kulturalaren gaitasuna indartzen.

2.- Hezkuntzak lagundu egin behar dio ematen den lurraldeko hizkuntz komunitateak hitz egiten duen mintzairaren euste eta garapenari.

3.- Hezkuntza beti ere hizkuntz eta kultur dibertsitatearen zerbitzura egongo da, eta baita, munduan zeharreko hizkuntz komunitate desberdinen arteko harreman harmoniotsuen alde ere.

4.- Aurreko printzipioen argitan, gizaki orok dauka edozein hizkuntza ikasteko eskubidea.

#### ***24. artikulua.***

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka erabakitzeko zein izango den bere hizkuntzak, hala hezkuntzaren hizkuntza gisa nola irakaskuntzaren gai gisa, izango duen presentzia bere lurraldeko maila guztietako hezkuntzan: eskolaurrean, oinarrizkoan, bigarrean, tekniko eta profesionalean, unibertsitatekoan eta helduen hezkuntzan.

#### ***25. artikulua.***

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka eskura izateko behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak bere lurraldearen barruko irakaskuntzaren maila guztietan, bere hizkuntzak nahi duen presentzia-maila lor dezan: modu egokian hezitako irakasleak, metodo pedagogiko egokiak, eskuliburuak, diruiturriak, lokalak eta ekipamenduak, baliabide teknologiko tradizionalak zein berritzaileak.

#### ***26. artikulua.***

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka halako hezkuntzaz gozatzeko non bere kide guztiei bide emango zaien bere hizkuntza propioa erabat menderatzeko, ohiko erabilera-eremu guztiei dagozkien gaitasun guztiekin, eta baita ikasi nahi dezaketen beste edozein hizkuntzaren jabetzerik osoena ere.

#### ***27. artikulua.***

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka halako hezkuntza izateko non bide emango zaien bere kide guztiei tradizio kultural propioarekin loturiko hizkuntza guztiak ikasteko, esate baterako kulturazko zein erlijiozko hizkuntzak, antzina, komunitate horren eguneroko hizkuntza gisa erabiliak izan direnak.

#### ***28. artikulua.***

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka halako hezkuntza izateko non bide emango zaien bere kide guztiei bere kultur ondarearen

(historia, geografia, literatura eta kultura propioaren beste adierazpenak) ezagutza sakonaz jabetzeko, eta halaber, ezagutu nahi luketen beste edozein kulturaren ahalik eta menderapen hoberena lortzeko.

**29. artikulua.**

1.- Gizaki orok eskubidea dauka hezkuntza jasotzeko bera bizi den lurraldeko hizkuntza propioan.

2.- Eskubide honek ez du alboratzen eskubidea beste hizkuntz komunitateekin komunikatzeko tresnatzat erabil daitekeen beste edozein hizkuntzaren ezagutza, hola ahozkoa nola idatzizkoa, bereganatzeko.

**30. artikulua.**

Hizkuntz komunitate bakoitzaren hizkuntza eta kultura, unibertsitate mailako ikaskuntza eta ikerkuntzaren gai izango dira.

### **III. ATALA ONOMASTIKA**

**31. artikulua.**

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka esparru eta egokiera guztietan bere sistema onomastikoari eusteko eta erabiltzeko.

**32. artikulua.**

1.- Hizkuntz komunitate orak eskubidea dauka bere lurraldeko toki-izenak bere hizkuntzaz erabiltzeko, ahoz eta idatziz, esparru pribatu, publiko eta ofizialetan.

2.- Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka toki-izen autoktonoak finkatzeko, gordetzeko eta berrikusteko. Toki-izen horiek ezingo dira arbitrarioki ezabatu, ez aldatu ez eta egokitu; era berean, ezin izango dira ordeztu gorabehera politikoen edo bestelako aldaketen karian.

**33. artikulua.**

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere burua hizkuntza propioan izendatzeko. Hortaz, beste hizkuntzetara egindako itzulpena egiterakoan, izendapen nahasgarri zein erdeinuzkook baztertzeke izango dira.

**34. artikulua.**

Gizaki orok eskubidea dauka bere antroponomia erabiltzeko eremu guztietan berea duen hizkuntzan, eta beste sistema grafikora, behar denean soilik, ahalik eta modu fonetikorik fidelenean transkribatua izan dadin.

#### **IV. ATALA**

#### **KOMUNIKABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK**

##### ***35. artikulua.***

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka erabakitzeko zein mailatako presentzia izan behar duen bere hizkuntzak bere lurraldeko komunikabideetan, hala tokikoak eta tradizionalak nola irismen handiago eta teknologia aurreratuagokoetan, erabiltzen den hedapen edo igorpen-sistemari begiratu gabe.

##### ***36. artikulua.***

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak eskura izateko ziurtatu ahal izateko bere hizkuntzaren eta kultur autoadierazpenaren presentzia non adinakoa izan dadin bere lurraldeko komunikabideetan: modu egokion hezitako giza baliabideak diru-iturriak, totalak eta ekipamendu, baliabide teknologiko ohiko zein berritzaileak.

##### ***37. artikulua.***

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka komunikabideen bidez bere kultur ondorearen (historia, geografia, literatura eta kultura propioaren beste adierazpenok) ezagutza sakonez jabetzeko, eta halaber, ezagutu nahi luketen beste edozein kulturaren ahalik eta menderapen hobereana lortzeko.

##### ***38. artikulua.***

Hizkuntz komunitateen hizkuntza eta kultura guztiek tratu ekitatibo ez baztertzailerik jaso behar dute mundu osoko komunikabideen edukietan.

##### ***39. artikulua.***

Deklarazio honetako 1. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan deskribatutako komunitateek, eta baita artikuluko bereko 5. paragrafoan azaltzen diren taldeek ere, eskubidea dute egoitza non finkatu edo lekualdatzen diren lurraldeko komunikabideetan, bere hizkuntzok errepresentazio orekatua izan dezan. Eskubide honen egikaritzea harmonizatu egin beharko da lurraldeko beste talde edota komunitateen eskubideen egikaritzarekin.

**40. artikulua.**

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka eskura edukitzeko bere hizkuntz sistemari egokitutako informatika-ekipamenduak, eta bere hizkuntzako tresneria eta produktuak, teknologia horiek eskaintzen duten ahalmen guztien onura atera ahal izateko, bai autoadierazpenari, hezkuntzon, argitarapenari edo itzulpenari dagokionez eta baita, oro hor, informazioaren tratamenduari eta kultur hedapenari dagokionez ere.

## **V. ATALA KULTURA**

**41. artikulua.**

1.- Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere hizkuntza kultur adierazpen guztietan erabiltzeko, sostengatzeko, eta bultzatzeko.

2.- Eskubide honen egikaritzok erabateko gauzatze-bidea izango du, inongo komunitateren espazioak atzerriar kultura baten okupazio hegemonikoa jasan beharrik izan gabe.

**42. artikulua.**

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere kultur mundu propioan erabat garatzeko.

**43. artikulua.**

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere hizkuntzan egindako lan guztietara iristeko.

**44. artikulua.**

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka kulturarteko programetara iristeko, behar adinako informazio-hedapenaren bidez eta halaber, sostengua eman dakien atzerriarren hizkuntz ikasketa, itzulpena, bikoizketa, postsinkronizazioa, azpitolugintza eta antzeko ekintzei.

**45. artikulua.**

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka lurraldeko hizkuntza propioak toki nagusia hor dezan kultur gertakarietan eta zerbitzuetan, hala nola liburutegiak, bideotekak, zinemak, teatroak, museoak, artxiboak, informatika-ekoizpena, folklorea, kulturaren industriak, eta kultur bizitzatik eratorritako beste gertakari guztiak.

**46. artikulua.**

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere ondore linguistiko eta kulturala zaintzeko, barnean izanik haien adierazpen materialak hala nola dokumentu-fondoak, arte eta arkitektura-lanak, monumentu historikoak, eta bere hizkuntzaren agerpen epigrafikoak.

**VI. ATALA**  
**ALOR SOZIOEKONOMIKOA**

**47. artikulua.**

1.- Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere hizkuntzaren erabilera xedatzeko bere lurraldearen barruko jarduera sozioekonomiko guztietan.

2.- Hizkuntz komunitate bateko edozein kidek eskubidea dauka bere hizkuntzan eskura izateko lanbide-jarduera egikaritzeko baliabide guztiak, hala nola kontsultarako dokumentuok eta liburuak, jarraibideak, formularioak eta informatikozko ekipamenduak tresnak eta produktuak

3.- Alor sozioekonomikoan beste hizkuntzen erabilera justifika dezaken arrazoi bakarra, egiten ari den lanbide-jardueraren izaera izango da. Inolaz ere ez daiteke onar berriki etorria den hizkuntzak lurraldekoa berezkoa den hizkuntza ezkutatzea edo erabilera menperatzea.

**48. artikulua.**

1.- Norbere hizkuntz komunitatearen lurraldearen gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntza balio juridiko osoz erabiltzeko era guztietako merkataritza-jardunetan, hala nola ondasun, eta zerbitzuen salerosketetan, banku-eragiketetan, aseguruetan. lan-kontratuetan, eta gainerakoetan.

2.- Ekintza pribatu horietako ezein klausulak ezin du baztertu edo mugatu lurraldeko hizkuntza propioaren erabilera.

3.- Gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntz komunitatearen lurraldean bere hizkuntzan eskura izateko aipatutako eragileak burutzeko behar diren agiriak, hala nola inprimakiak, txekeak, kontratuek fakturak, ordainagiriak, emate-agiriak, eskaerak eta gainerakoak.

#### ***49. artikulua.***

Gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntz komunitatearen lurraldean bere hizkuntza erabiltzeko edozein mototako erakunde sozioekonomikoetan, hala nola laboralak, sindikalak, patronalak, lanbidekoak eta gremioak.

#### ***50. artikulua.***

1.- Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere hizkuntzak presentzia nagusia izan dezan publizitatean, errotulazioan, kanpo-seinaleztapenetan eta lurraldearen irudi orokorrean.

2.- Hizkuntz komunitate propioaren lurraldeen gizaki orok eskubidea dauka bere hizkuntzan informazio osoa izateko idatzia zein ahozkoa, lurraldean finkatutako merkataritza-establezimenduek eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuez, hala nola erabiltze-jarraibideak, etiketak, osagai-zerrendak, publizitatea, bermeak eta gainerakoak.

3.- Pertsonen segurtasunari dagozkion argibide publiko guztiak hizkuntz komunitatearen hizkuntzen, gutxienez, adieraziko dira, beste edozein hizkuntzatako adierazpenak baino kondizio ez okerragotan.

#### ***51. artikulua.***

1.- Gizaki orok eskubidea dauka lurraldeko hizkuntza propioa erabiltzeko enprekin, merkataritza-establezimenduekin eta erakunde pribatuekin dauzkan harremanetan, eta hizkuntza berean atenditua eta erantzuna izateko.

2.- Gizaki orok eskubidea dauka, bezero, kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa, jendeari zabalduko establezimenduetan lurraldeko hizkuntza propioan informatua izateko, hola ahoz nola idatziz.

#### ***52. artikulua.***

Gizaki orok eskubidea dauka jarduera laboralak eta lanbideak lurraldeko hizkuntza propioan egiteko, salbuetsiz lanpostuari dagozkion funtzioek beste hizkuntzen erabilera eskatzen duten kasuak, halakoak baitira hizkuntz irakasleak, itzultzaileak, turismo-gidariak.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

#### ***Lehena. -***

Botere publikoek Deklarazio honetan aldarrikatutako eskubideak aplikatzeko neurri egoki guztiak hartu beharko dituzte, zeinek bere

jardute-alorrean. Zehazkiago, nazioarteko fondoak eskura jarri beharko dira, nabarmenki baliabide eskasian dauden komunitateen Hizkuntz Eskubideen egikaritza sostengatzeko. Era beran, botere publikoek behar den sostengu guztia eman beharko dute hainbat komunitateren hizkuntzak kodetzeko, transkribatzeko, irakasteko eta administrazioan erabiltzeko.

***Bigarrena.*** -

Botere publikoek zainduko dute Deklarazio honen arabera dagokien agintariak, erakundeak eta pertsonak bertatik jorratzen diren eskubideen eta betebeharrak korrelatiboen informazioa jaso dezaten.

***Hirugarrena.*** -

Botere publikoek aurrakusi beharko dituzte, indarrean den legerien arabera, Deklarazio honetako hizkuntz eskubideak urratzearen ondoriozko zehazpenak.

## **AZKEN XEDAPENAK**

***Lehena.*** -

Deklarazio honek proposatzen du Hizkuntzen Kontseilua sortzea Nazio Batuen baitan. Nazio Batuen Batzar Orokorrari dagokio Kontseilu hori sortzea, bere eskumenak zehaztea, bertoko kideak izendatzea, eta Deklarazio honetan errekonozitutako eskubideak egikaritzekoan hizkuntz komunitateak babestuko dituen nazioarteko zuzenbideko erakundea xedatzea.

***Bigarrena.*** -

Deklarazio honek gomendatzen du eta sustatzen du Hizkuntz Eskubideen Munduko Batzordea sortzea, zeina izango baita ez ofiziala, izaera kontsultibokoa, eta Gobernu Kanpoko Erakundez eta hizkuntz zuzenbidearen alorreko erakundez osatua. Bartzelona, 1996ko ekainaren 6a.

Bartzelona, 1996ko ekainaren 6a.

...oOo...